**GURE GARAIKO GAZTEOK EZ GENUEN HALAKORIK EGITEN...**

·**Zuek bai jakin!:** Juan Luis Ayuso ·**Elkarrizketa:** Felix Urtzelai

·**Izerdi patsetan:** Walid Ouaalit ·**Boteprontoan:** Marian Larrañaga

Herri Aldizkaria

# Otamotz

2011ko
maiatza
167. alea

**Urretxu-Zumarraga Ikastola**

**Goi mailako Heziketa Zikloetarako**
**nahiz Unibertsitaterako prestakuntza egokiena**
**www.uzikastola.net**
**urretxu@ikastola.net**
**Labeaga kalea, 25 - Urretxu - ☎ 943 72 21 12**

# PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK PREBENTZIOA DU HELBURU**

KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
☎ 943 72 41 00
e-mail: administracion1@premank.com

# IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09
e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA

**Argitaratzailea:** Goierriko Hedabideak. Labeaga 12, Urretxu. 943 72 34 08 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Azaleko argazkia:** Ander Kerejeta **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Banaketa:** Etxeraino **Publizitatea:** Iker - 647 319 775 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

# aurkibidea


**04** **Hilabete honetako gaia**
Gure garaiko gazteok ez genuen halakorik egiten...

**12** **Komikia / Egurra partitzen**

**13** **Zenbat buru, hainbat aburu**
Maiatzaren 18an museoen nazioarteko eguna izan zen.
Museoetara joatea atsegin al duzu? Zein da zure kuttuna?

**14** **Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**

**15** **Gure gomendioa**

**16** **Klik eta klik**
Jonmikel Intsausti

**20** **Zuek bai jakin!**
Juan Luis Ayuso

**24** **Elkarrizketa**
Felix Urtzelai

**26** **Izerdi patsetan**
Walid Ouaalit

**28** **Gure aholkuak**

**29** **Argazki zaharra**

**30** **Boteprontoan**
Marian Larrañaga


Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

# Gure garaiko gazteok ez genuen halakorik egiten...

*Gizartea asko aldatu da azken hamarkadotan eta gazteak ere asko aldatu direla pentsatzeko joera dugu. Hala ote da? Zer egiten zuten duela 60 urteko gazteek? Eta duela 30 urtekoek? Zer ikasten zuten? Zer musika mota gustatzen zitzaien? Kirola egiten al zuten? Nolakoak ziren sexu harremanak? Egungoak bezain txoriburuak ote ziren? Ala zahartu garelako esaten ote dugu gazteak txoriburuak direla? Galdera hauei guztiei erantzuteko hiru belaunaldi ezberdinetako lagunekin euren gaztaroari buruz hitz egin dugu.*

The Hot Dogs taldearen kontzertua gaztetxean.

# Antonio Elortza eta Araceli Garcia: "Egungo gazteak gure garaikoak baino zintzoagoak eta irekiagoak dira"


Antonio Elortza eta Araceli Garcia Zumarragako geriatrikoan.

Araceli Garcia eta Antonio Elortza Zumarragako Lamourous geriatrikoan bizi dira. Garcia Irunen jaio zen duela 82 urte, baina hiru urte zituenetik Zumarragan bizi da. Elortza, berriz, bergararra da. 68 urte bete behar ditu. Biak irakasleak izan dira.

Elorzak gaztetan dena koadrilan egiten zutela dio. "Mutikotan denetik egiten genuen: mendira joan, gaztainak hartu eta nonbaiten erre... 16-17 urterekin plazako dantzaldietara joaten hasten ginen. Bestalde, arkupeetan pilota partidak jokatzen ziren. Zein toki txikitan jokatzen genuen ikusten dudanean txunditu egiten naiz. Futbola ere gustatzen zitzaigun, baina garai hartan baloi gutxi zegoen". Kirolekin jarraituz, Aracelik goitibeherak aipatu ditu. "Karrotxoekin saskigileen aldapa jaistea ere gustatzen zitzaigun. Geriatriko zaharrean goitibehera lasterketa ikusten nuen eta kirol hau nire belaunaldiko mutikoekin jaio zen, Zumarragan behintzat".

Neskei ere dantza egitea gustatzen zitzaiela gehitu du. "Jai egunetan dantzaldietara joaten ginen. Bi herriek banda oso onak zituzten eta herri batetik bestera ibiltzen ginen: batek atseden hartzen zuenean ondoko herrira joaten ginen. Zinemara ere askotan joaten ginen. Garai batean areto asko zeuden: hasieran Ederrena pilotalekukoa bakarrik, baina gero Zumarragako parrokiakoa ireki zuten. Ondoren Itzalon ireki zuten".

Elortzak erromerietara joatea ere asko gustatzen zitzaiela oroitzen du. Musika zaleak ziren, beraz. "Dantza egiteko moduko abestiak gustatzen zitzaizkigun, ez egungo txanda-txanda-txanda", dio Aracelik. Baina dantzaldietara ez ziren musikagatik bakarrik joaten... "Dantzaldietan eta erromerietan bakarrik zegoen ligatzeko aukera. Lagunari neska bat gustatzen bazitzaion eta hura lagun batekin bazegoen lagundu egiten genion. Gaur niregatik eta bihar zuregatik", aipatu du Elortzak.

Gainontzekoan neskak eta mutilak bananduta bizi ziren. "Eskolan bananduta, elizan bananduta, kalean hala moduz... Irakaskuntza mistoarekin gauzak asko aldatu ziren. Guk neskei buruz ezer gutxi genekien eta eurek gutaz ere ez". Garciak arrazoia ematen dio. "Guretzat beldurgarriak ziren eta baten batekin dantza egin nahi ez genuenean trukua genuen: Mariaren Alabak kongregaziokoak ginela eta ezin genuela dantza egin esaten genion. Dantza egin nahi genuenean, berriz, aitaz ere ez ginen gogoratzen!".

Hori guztia dantzalekuen sorrerarekin aldatu zela dio Elortzak. "Dantzaldi publikoak desagerrarazi zituzten. Dantzaldia ekitaldi pribatua bihurtu zen. Apaiza eta gurasoak ez ziren dantzalekuetan sartzen eta gazteak askatasun handiagoaz mugitzen ziren. Nik Golden dantzalekuaren lehen urteak ezagutu nituen, baina Bergara inguruko lehena Eibarkoa izan zen. Ondoren herri guztietan ireki ziren". Musika ere aldatu zen: dantza egiteko musika rock musikak ordezkatu zuen. "Aldaketa handia izan zen, baina ondo hartu genuen".

Dantzalekuetan plazetan baino askoz ere gehiago ligatzen zen. Elorzak urte haietan nesken mentalitatea aldatu egin zela dio. "Garai batean zuhurtzia handiz jokatzen zuten, barrera moduko bat zegoen.

Baina hori aldatu egin zen". Sexua beste kontu bat zen. "Tabua zen. Ez genuen inongo heziketarik jaso", azaldu du bergararrak. "Ikasle asko etortzen zitzaizkidan sexuari buruzko sekulako txorakeriak esaten: euren amak asmatutakoak egia ez esatearren. Nik egia azaltzen nien", gehitu du Garciak.

Horren guztiaren ondorioz gehienek berandu hasten zituzten sexu harremanak. "Bueno... Muxu bat lortzea sekulako garaipena zen! Lehenago serio gindoazela erakutsi beharra zegoen. Bikote gehienek ez zuten sexu harremanik izaten ezkondu arte", oroitzen du Elortzak. Dena den, garai hartan umezurtz-etxeak zeudela oroitzen du.

Izan ere, garai hartan inon ez zen sexuaz hitz egiten. "Sexu harremanak izatera ausartzen ziren asko haurdun gelditzen ziren eta garesti ordaintzen zuten. Gizarteak ez zien barkatzen, batez ere neskari, baina ezta mutilari ere. Arrasaten mutil bat eskolatik botatzeko zorian izan zirela gogoratzen dut".

Seme-alaben eta gurasoen arteko harremana ez zen egungoa bezalakoa, noski. "Ez zegoen egun bezainbeste konfiantza. Errespetua baino gehiago beldurra zen nagusi", dio bergararrak. Araceliren gurasoak Irunen bizi izan ziren eta, beharbada Frantziaren eraginez edo, Zumarraga baino herri irekiagoa zela azaldu du.

Garai hartan gai asko ez ziren etxean aipatzen. Sexuaz gain, politika ere ez. "Nire gurasoak EAJkoak ziren, baina sekula ez zuten politikaz hitz egiten. Hori bai, *Radio Pirenaica* entzuten genuen. Gaztetan, koadrilan ere ez genuen hitz egiten. ETA sortu zenean, ordea, gazteon artean ezinegon handia piztu zen. Lagun zaharrek elkarri hitz egiteari utzi zioten". Araceliren etxean, ordea, zer edo zer hitz egiten zuten. "Behin gurasoei zer nahiago zuten galdetu genien eta guztiek hanka sartu zutela erantzun zuten: monarkia, Primo de Riveraren diktadura, Errepublika eta Frankismoa ezagutu zituztela kontuan izan behar da". Bestelakoan, Elortzaren iritzi berekoa da. "Lagunen iritzia jasotzen saiatu nintzenean, batzuek ez zutela politikaz hitz egin nahi konturatu nintzen".

Ikasketei dagokienez, gehienek ez zuten Antonio eta Araceliren zortea izan. "Gehienek oinarrizko hezkuntza eta lanbide hezkuntza egiten zuten. Hortik lantegietara joaten ziren. Lanean hasteko 14 urte izan behar ziren, baina askok datuak faltsutzen zituzten eta lehenago hasten ziren". Emakume askok, berriz, ez zuten etxetik kanpo lan egiteko aukera izaten. "Emakumeok ez genuela ikasteko eskubiderik zirudien. Gizonezkoei aukera gehiago eskaintzen zitzaien. Horrekin bukatzeko eskola mistoaren alde egin nuen. Familia askok neskak eskola publikora bidaltzen zituzten eta mutilak La Sallera azken hau hobea zelakoan. Etxe askotan uste hori ez da desagertu oraindik". Emakume asko saskigintzan aritu ziren, baina Aracelik ezkontzen zirenean lana uzten zutela dio. Bergaran berbera gertatzen zen.

Gauzak asko aldatu dira, zorionez. Aracelik eta Antoniok egungo gaztedia "ondo" ikusten dute. "Egungo gazteak zintzoagoak eta irekiagoak direla uste dut. Sanoagoak. Garai hartako hezkuntzak eta giroak ez zioten gazteari bere burua garatzen uzten. Egun komunikazio tresna asko daude eta gazteek euren irizpidea sortzeko aukera dute. Aukera gehiago dituzte. Pentsatzen dutena esaten dute. Lehen, ordea, beldur ginen. Markatutako bidetik ateratzea arriskutsua zen. Ikasleek neure garaian irakasle bati inolaz ere esango ez nizkien gauzak esaten zizkidaten", azaldu du Elortzak.

Bestalde, gazteak alferrak direla esateko joera egon da beti. "Denetik egongo da... Lehen ere denetik zegoen, e!". Drogak ere beti izan dira, era batekoak edo bestekoak. "Gure garaian tabakoa eta txikitoak ziren droga bakarrak", oroitzen du Elortzak. "Gerra ondoren Zumarragako emakume batekin ezkonduta zegoen gizonezko bat drogen eraginez hil zela gogoratzen dut. Hori izen zen nire lehen harremana drogekin. Asko hitz egin zen gaiari buruz", aipatu du Aracelik.

Elorzak soldadutzan izan zuen tabakoa eta alkohola ez diren drogekin lehen hartu-emana. "Ceutan egin nuen. Han taberna batean sartzea eta haxixa usaintzea bat zen. Nik ez nuen sekula probatu, baina ez aukerarik izan ez nuelako. Han porroak bolo-bolo zebiltzan eta Afrikan egondakoek hona ekarri zituzten".

Lehengo gaztediaren eta egungoaren artean antzekotasunak badaudela diote. "Bai lehen eta bai orain ideiak argi dituenak aurrera egiten du. Korrontearen aurka joateko indartsua izan behar da, bai lehen eta bai orain. Egun aukera zabalagoa dago, baina arriskua ere handiagoa da. Gainera, guraso askok hezkuntza irakasleen esku utzi dute, baina irakasleekin oldarkor ageri dira euren seme-alabei gogor egiten badiete. Irakaskuntza asko gustatzen zait, baina egun ez nintzateke irakasle izango. Eta errua ez da gazteena, gurasoena eta gizartearena baizik", amaitu du Elortzak. Garcia iritzi berekoa da.

# Garai berri baten sorrera bultzatu eta ezagutu zuten 80ko hamarkadako gazteak

Joneli Apaolaza, Idoia Busca, Amaia Legaristi eta Mariasun Mendizabal Berri tabernan.

Amaia Legaristi, Mariasun Mendizabal, Idoia eta Alberto Busca eta Joneli Apaolazak 80ko hamarkadan bizi izan zuten gaztaroa. Hamarkada berezia izan zen, onerako eta txarrerako: politika, musika, droga... urte haietan aldaketa asko izan ziren.

Mendizabalek eta Buscak garai hartan giro ezberdinak zeudela gogoratzen dute. "Amaia eta gu koadrila berekoak gara, baina giro oso ezberdinetan mugitzen ginen. Gu Gaztelekura eta Tiffany's-era joaten ginen eta parranda egitea zen gure zaletasun nagusia. Beste batzuk oso politizatuta zeuden, baina guk rock musika besterik ez genuen buruan. Ez geunden politikaren kontra, baina paso egiten genuen. Tiffany's, kontzertuak eta porroak nahiago genituen".

Izan ere, droga nobedadea zen. "Gure belaunaldikook denarekin hautsiko genuela uste genuen. Esperientzia berriak ezagutu nahi genituen eta herri

batzuetan larrutik ordaindu genuen: Zumarragan, Elgoibarren, Eibarren, Errenterian... Beti esan da droga goikoek sartu zutela, guztia aldatzeko nahi hori zapaltzearren", dio Alberto Buscak. Heroinak eragindako triskantza asko gogoratzen da, baina politikak eta musikak ere sekulako indarra zuten garai hartako gazteen artean. "Alderdiek bereganatu egin nahi gintuzten, baina askok paso egiten genuen. Apolitikoa izatea kontsigna modukoa zen. Koadrilako beste batzuek, berriz, politika gertutik jarraitzen zuten. Gure artean harreman ona genuen", gehitu du. Dena den, bere arrebak eta Mariasun Mendizabalek euren taldea "markatu" samarra sentitu zela dio.

Urte haietan heroina lortzea oso erraza zen eta pauso txikia zegoen kontsumitzearen eta ez kontsumitzearen artean. "Denok izan genituen dinamika horretan sartu ziren lagunak. Gu ere gertu ibili ginen, baina argi bat piztu zitzaigun eta ez probatzea erabaki genuen. Oso azkarra eta baliotsua zen jendea dinamika horretan sartu zen eta azkenean besteongandik aparte bukatu zuten. Garai hartan ez zegoen drogaren inguruko inongo informaziorik".

Politikaz, musikaz eta drogez gain; kirola ere erakargarria da gazteentzat. Alberto Buscak 16-17 urterekin mendira asko joaten zirela eta beste batzuek futbolean jokatzen zutela aipatu du, baina adin horretatik aurrera kirola egiteari utzi ziotela. "Udan Ezkizu igerilekura joaten ginen eta kito. Ez zegoen beste ezer eta eskolan ez zen horrenbeste bultzatzen kirol zaletasuna. Ez zen egun bezala. Egun sekulako eskaintza dute", azaldu du bere arrebak. Garai hartan mutilek neskek baino kirol gehiago egiten zuten. Apaolazak Zumarragako jaietako gizonprobetan parte hartu zutela gogoratzen du, adibidez.

Neska-mutikotan, mendira joateaz gain Legazpi kaleko joko-aretoa eta Ederrena pilotalekuko dantzaldiak ezagutu zituzten. Bertan euskal musika zen nagusi. Bestalde, Zelai Arizti parkean ordu asko ematen zituzten. Idoia Buscak Ederrenako dantzaldietan arropa jasotzen lan egiten zutela gogoratzen du. "Han irabazi genituen gure lehen txanponak. Han irabazitakoari esker erosi ahal izan genituen gure lehen kapritxoak: Levi's prakak eta halakoak. Garai hartan anaia-arreba zaharragoengandik jasotzen genuen arroparekin pasatzen genuen negua. Ez zen orain bezala". Mariasun Mendizabal lagunak lotuan dantza egiten ziren garaiak ezagutu zituztela gehitu du. "Pilotalekuko dantzaldietan hala dantzatzen zen. Egun ia inork ez du hala dantza egiten". Ondoren, beste toki batzuetara joaten hasi ziren: Golden, Tiffany's, Jai Alai, Gazteleku... Tiffany's izan zen euren toki kuttuna.

*"Azkarra eta baliotsua zen jendea heroinaren dinamikan sartu zen eta besteongandik aparte bukatu zuen"*

Gurasoekin harremana egungoaren oso bestelakoa zela diote. "Guk gehiago hitz egiten dugu seme-alabekin". Hala ere, Alberto Buscak gazteak beti kalean etxean baino gehiago ikasten duela dio. "Gure garaian ama ardura-tzen zen gehienbat hezkuntzaz. Aita autoritatea bezala ikusten genuen. Azkenean kalean gehiago hitz egiten genuen". Bere arrebak ia dena ezkutuan egiten zutela oroitzen du. "Nire ustez egun hobeto dakigu seme-alabak zertan dabiltzan. Dena den, badakit ez dugula guztiaren berri eta gainera euren esparrua ere behar dute. Egun gauzak naturalagoak dira. Lehen ia dena ezkutuan egiten genuen". Joneli Apaolaza bere bikoteak gauza batzuk ez direla horrenbeste aldatu azaldu du. "Guk ere, egungoek bezala, zerrikeriarik handienak oso gaztetan edaten genituen".

Gurasoekin harremana ez ezik neska eta mutilen artekoa ere aldatu dela uste dute. "Sexu kontuan aurreko belaunaldia baino apur bat lehenago hasi ginela uste dut, baina guk ere ez genuen trebakun-tza handirik eta oso goiz hasten zen neskari denetik deitzen zitzaion. Tontakeria asko genituen buruan. Pelikuletan ikusten genuena eta lagunartean aipatzen zena besterik ez genekien. Ez genuen informaziorik", diote Mendizabal eta Buscak. Amaia Legaristik amari hilekoa etorri zitzaiela esan beharrak ere lotsa ematen ziela oroitzen du. "Alabekin, berriz, asko hitz egiten dut. Txikiak nekatuta nauka jada". Eskolari dagokionez, gurasoek ez zietela mugarik jarri diote. Hori bai, eskaintza egun baino mugatuagoa zen. "Institutura edo La Sallera joan behar genuen.

Lanbide Hezkuntzan ez zegoen egun bezainbeste aukera. La Sallen mekanika, elektronika, elektrizitatea eta delineatzaile bakarrik irakasten zuten", oroitzen du Apaolazak. Bestalde, egun baino neska gutxiago joaten zen Unibertsitatera. "Ikasketak uzten ziren. Egun argiago dago prestatu beharra dagoela", dio Mendizabalek. Buscak berak ez zuela ikasi nahi eta 17 urterekin lanean hasi zela oroitzen du. Baina 80ko hamarkadan ere krisi latza izan zen eta ez zen erraza lan ona aurkitzea. "Baldintza txarretan lan egiten genuen eta ez genuen independizatzeko aukerarik. Neska asko Ingalaterrara joan ziren

*"Egungo gurasook garai batekoek baino hobeto dakigu seme-alabak zertan dabiltzan"*

*au-pair* lan egitera hemen ezer ez zegoelako. Urte bat edo bi eman zituzten bertan, ingelesa ikasi zuten eta beste mundu bat ezagutu zuten".

Belaunaldi hartako neskek, aurrekoek ez bezala, argi zuten etxetik kanpo lan egingo zutela. "Oso argi genuen lan egingo genuela. Ez genuen ezkondu eta eguna etxean emateko asmorik. Independenteak izan nahi genuen eta horretarako gure dirua behar genuen. Etxekoandreak izatea tokatu zaigu, baina beste era batera", azaldu du Idoia Buscak. Mendizabalek feministak direla uste du. "Beharbada ez ginen oso kontziente. Ez geunden politizatuta eta ondo pasatzea zen gure helburu nagusia, baina jarrera feminista genuela uste dut". Lanaz eta independentziaz ari direla, Amaia Legaristik beste kontu bat oroitu du: garai hartan seme-alabek soldata etxean uzten zutela. Mendizabalek bera lanean beranduago hasi zela eta ez zuela halakorik egin behar izan dio. Egungo gazte asko ere berandu hasiko da lanean. Asko halabeharrez, zoritxarrez. Garai gogorrak bizi ditugu, baina Legaristik gazteak ondo ikusten ditu. "Alaba nagusiak futbolean jokatzen du eta zintzo ikusten dut". Apaolazak kontsumismora ohituta daudela dio. "Dena dute. Pedala hausten bazaie bizikleta berria erosten diegu. Gu anaia-arreba nagusiek uzten zutenarekin ibili behar izaten genuen".

Mariasun Mendizabalek eurak ez zirela oso borroka zaleak uste du, baina egungoak are eta gutxiago. "Interes gutxi dituzte: Reala eta ezer gutxi gehiago". Amaia Legaristik errua helduona dela dio. "Gu ere gero eta kontsumo zaleagoak gara eta gazteak horretara ohitu ditugu. Ez dut uste gure horren ezberdinak direnik. Gure helburu nagusia ere ondo pasatzea zen. Oraingoek ez dutela kalean horrenbeste jolasten? Guk etxean ez genuen ezer eta!", amaitu du.

Etsaiak koadrilako lagunak 1975ean.

# “Gure gurasoak beti gora joan dira eta guri beharbada goitik behera joatea tokatuko zaigu”

Bost gazteak Zintzo Mintzoren egoitza zaharraren kanpoaldean.

Eli Unanuek eta Amaia Iturriotzek 18 urte dituzte, Oihane Arruabarrenak eta Joseba Angulok 19 eta Iñigo Igartzak 20. Bostak gaztaroan murgilduta daude, beraz. Bost neska-mutil hauek ikusita, ez dago egungo gazteak txoriburuak direla esaterik.

Gehienak musika zaleak dira eta euretako batzuk instrumentuekin azaldu ziren. Iturriotz, berriz, bertsolaria da. Urretxu eta Zumarragako gazteek denetik entzuten dutela diote. “Tabernetan denetik entzun daiteke”, diote. Dena den, dagoeneko musika ez dute dantza egiteko erabiltzen. Lagun artean daude-

nean beste gauza batzuk egiten dituzte. "15-16 urtekoak garitoetan elkartzen dira eta gure adinekoak tabernetan. Dena den, badago garitoetan jarraitzen duen gure adineko jendea".

Beraiek tabernetako giroa nahiago dute. "Gehiago mugitzen zara eta jende gehiagorekin elkartzen zara. Garitoan sartuz gero, toki berean eta jende berberarekin ematen da arratsaldea edo gaua", azaldu dute.

Angulok eta bere lagunek garitoa dute oraindik eta bertan tabernetan eskaintzen ez diren aukerak dituztela dio. "Ping-pongean edo futbolinean joka dezakegu, DVD bat ikusi, bideokontsolarekin jolastu...".

Duela hamarkada batzuk parranda egiteko herritik ateratzeko joera handiagoa zegoen: kontzertuetara, dantzalekuetara... Egungo gazteak gutxiago irteten dira. "Festetan, uda garaian, bakarrik irteten gara herritik". Dantzalekuak Gasteizen ikasten duten hiruek bakarrik ezagutzen dituzte. "Ostegunetan tabernak goiz ixten dituzte eta gero halakoetara joaten gara". Garai batean dezente edaten zen eta gazteak ez direla horretan gehiegi aldatu diote. Beste drogei dagokienez, marihuana eta haxixa nagusi direla aipatu dute. Drogei beldurra galdu zaiela uste dute.

Lagunekin ibiltzeaz gain, beste zaletasun batzuk ere badituzte, noski: kirola egitea, adibidez. Kirolen artean atletismoa, mendia, igeriketa eta saskibaloia aipatu dituzte. Aspalditik egiten diren kirolak dira, baina egungo eskaintza askoz ere zabalagoa da. Hala, lagun askok kirol berriak egiten dituztela diote. "Gure adineko asko kiroldegira joaten dira aerobic, spining eta halakoak egitera", diote. "Hemen bertan ez horrenbeste, baina beste toki batzuetan eskaladak indar handia du adibidez", gehitu du Igartzak.

Nesken eta mutilen arteko harremanari dagokionez ere gauzak asko aldatu dira. "Hasieran denak elkarrekin ibiltzen ginen, baina gero banandu egin ginen. Harreman ona dugu, baina apenas dago koadrila mistorik". Horretan gauzak ez dira asko aldatu, beraz. Sexu kontuan bai, ordea. Egungo gazteek garai batekoek baino askoz ere informazio gehiago dute. "Informazio asko dago. Eskoletara profesionalak etortzen dira, besteak beste. Etxean, ordea, ez dugu asko hitz egiten gai horri buruz. Kanpotik datozen profesionalekin aspalditik ezagutzen ditugun irakasleekin edo gurasoekin hitz egitea baino errazagoa da", aitortu dute.

*"Koadriletan ideologia ezberdinetako jendea dago eta politikaz hitz egitea saihestu egiten da"*

Politikaz ere ez dute asko hitz egiten. "Gehiengoak paso egiten du. Koadriletan ideologia ezberdinetako jendea dago eta hitz egitea saihestu egiten da. Gure ustez garai batean inplikazioa handiagoa zen. Gutxi batzuk bakarrik inplikatzen dira politikan eta gai hori beste esparru batzuetan jorratzen dute, ez koadrilan".

Ikasketei dagokienez, gehienek Batxilergoa egiten dutela diote. Unibertsitatera duela hamarkada batzuk baino jende gehiago joaten da. "Gurasoek, normalean, seme-alabek Unibertsitatera joatea nahi dute. Jende asko irakasle-ikasketak eta Enpresa Zientziak ikasten ari da. Dena den, Lanbide Heziketa lehen baino hobeto ikusia dago".

Erreportaje honetako protagonistak oraindik ikasten ari dira, baina aurki lan mundura salto egin beharko dute. Etorkizuna "zaila" izango dela uste dute. "Seguru aski baldintza txarretan lan egitea tokatuko zaigu. Ez dugu asko pentsatzen horretan, baina pentsatzen jarrita ez datorkigu gauza onik burura". Ez dakite orain arte izan duten bizimoduari eutsi ahal izango dioten. "Gure gurasoak beti gora joan dira eta gu beharbada goitik behera joango gara", aipatu dute kezkatuta.

Beharbada euren heldu aroa gurasoena baino gogorragoa izango dela uste dute, baina gaztaroa gozoagoa dela argi dute. "Gurasoen gaztaroa gurea baino askoz ere gogorragoa izan zen. Ikasteko guk bezainbeste aukera ez zuten izan eta lanean lehenago hasi behar izan zuten. Guk baino gutxiago zuten eta gauzak gehiago baloratzen zituzten. Guri dena eginda eman digute eta erosoegi bizi izan gara, beharbada. Horren eraginez, askotan ez dakigu zailtasunei aurre egiten. Erosotasunak inplikazio eza ere ekartzen du. Mugitzeko beharrik ez sentitzea", amaitu dute.




## egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

# Hil zen, baina bizi da

"Ez zen abeslari handia izan, ez eta poeta sakona ere. Hala ere, herriaren sentipenen itzultzaile izugarria da. Badago zerbait, ez dakit zehazki zer den, Iparragirre erakargarri eta betirako egiten duena. Hori beti egin zaigu oso deigarria". Hitzok ez dira gureak, gure egiten ditugun arren. Elkarrizketa batean bota zituen Natxo de Felipe handiak, izugarri miresten dugun beste musikari bat, portzierto, Xabier Euzkitze, Ken Zazpiko tipo jator hori, Mikel Urdangarin eta Amaia Zubiriarekin batera. Hainbeste lan egin dute euskal kulturaren alde! Tira, kontua da aurten 130 urte bete direla Urretxuko bardoa hil zela, eta herriak merezi bezala omenduko duela. Zumarratarrak gara, baina gertu sentitzen dugu Josemaria, gertu Josemariaren bizarra, gertu haren gitarra eta batez ere gertu haren zaletasun extra-musikalak. Ezjakin batzuek diote urretxuarrek herritik bota zutela Iparragirre eta bere kantuak ezagunak egin zirenean adoptatu zutela berriz. Beste batzuek esan zuguten museo bat egingo ziotela eta haren lekua fritanga usaineko sastraka zikin batzuek betetzen dute. Espero dugu urteurrenak sakrilegio horiek guztiak ezabatzea eta *Bixarras*-en figura gorenera eramatea. 130 urte ez dira gutxi eta Urretxuk oraindik ez du eman nazio mailan horren famatu egin den pertsonaiarik. Pilotaz baino ziklismoaz gehiago dakien arrantzaleaz hitz egin genezake, baina jarri dioten estatua bakarra Eitzako errotondan zegoen (indar errepresiboek kendu arte). Bere sorterrian, oraindik ezer ez. Beldur gara Urretxuko agintariak Azpeittire begira ez ote dauden, seme prodigoa etxera itzuli eta kanonizazio prozesua abiatzeko. Berandu baino lehen egitea espero dugu! Enfin, ke gora el Iparragirre ese y gora los de Urretxu. PD: Animo Iño! (Leioako patxanga urteetan bidaide izan zintugunok Izazpin gora ikusi nahi zaitugu berriz, baita poteatzen ere!).

# Maiatzaren 18an museoen nazioarteko eguna izan zen. Museoetara joatea atsegin al duzu? Zein da zure kuttuna?



Patxi Iñarrea

Museoak atsegin ditut. Logroñon, adibidez, natur zientziei buruzko museo ederra dugu. Madrileko El Pradora behin baino gehiagotan joan naiz eta argizari-museoan ere izan nintzen. Kulturarekin zerikusia duen guztia ondo dago. Dena den, benetan atsegin dudana eraikinak dira. Escorial, adibidez, ikusgarria da.

Itziar Velasco

Ez nekien lehengoan museoen nazioarteko eguna izan zenik. Kanpora joaten garenean bakarrik bisitatzen ditugu museoak. Hemen ingurukoetan ez naiz izan. Estatu Batuetara joan ginenean New Yorkeko zientzia museoan eta Washingtoneko aeronautika museoan izan ginen. Zientziak asko gustatzen zaizkigu.

Jon Auzmendi

Entzun nuen, bai, museoen nazioarteko eguna izan zela. Sarrera doan izan zen museoetan. Batzuk atsegin ditut. Igartubeitin izan naiz eta baita Guggenheimen ere. Bitan: Oteizari buruzko erakusketa ikusten eta motorrena. Madrilgo argizari-museoan ere izan nintzen. Angel Nieto motor gainean zegoela oroitzen dut. Museo guztiak atsegin ditut.

Juanra Irizar

Ez nekien lehengoan museoen nazioarteko eguna izan zenik. Egia esan, ez naiz zalea. Madrileko argizari-museoan izan nintzela gogoratzen dut. Gustatu zitzaidan. Museoak ez ditut asko atsegin, baina herrian antolatzen diren erakusketetara gustura joaten naiz.

## bota bertsoa!

**Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2011. Soraluze, 2011-5-15. Bertso sorta osoa www.otamotz.com atarian.**

### Gaia: Amaiak argaltzeko ahalegina egin nahi du, baina Agin amonak izugarrizko otorduak jartzen dizkio.

Amaia Iturriotz
eta Agin Rezola

Amaia:
Amama bazkaritan
jan behar denetik,
gehienak barazkiak
hartuak balkoitik.
Argaldu egin nahi det
esten diot nik,
ta tortila patata
erdia jartzen dit.

Agin:
Ene neska morroska
gure etxeko prenda,
ikasiya dakana
etxerako xenda.
Hirekin husten diñet
nik herriko denda,
dozena bat arraultza
hiretzat zer den ba?

Amaia:
Arraultzekin eiten dit
kristoren pastela
haunditu behar dezu
esateit horrela,
amama ez didazu
ulertuko bela,
zabaleraz bakarrik
haziko naizela.

## iritziz iritzi

Gotzon Aranburu



### Kristauen defentsan, behin bada ere

Maiatzaren 10eko egunkaria daukat aurrean eta argazki bat ikusten dut: Egiptoko kristau kopto mordoxka bat protesta bizian, musulman talde batek egindako erasoan hamabi hildako eta 238 zauritu izan zirela eta. Ez naiz ni hasiko erlijioak defenditzen, denak soberan daudela sinestuta bainago, baina gutxiengoa zapaltzeak sutan jartzen nau. Kristauek badakite zer den beste erlijioetako sinestunak hiltzea, historian zehar krimen asko eta asko egin baitira gurutzearen itzalean. Baina orain, momentu honetan eta toki konkretu horretan, kristauak dira musulmanen eraso bortitzak jasaten ari direnak. Elizak erretzen dizkiete, mezatan daudela tiroka sartu, kalean egurtu... eta polizia beste aldera begira. Lau katu dira koptoak Egipton eta beldurrak airean bizi dira; gehienek atzerrira alde egingo omen lukete dirua izanez gero. Garbi esango dut. Ez diet sinpatia handirik islamistei, ideologia totalitarioaren aztarna nabarmenak ikusten baititut horien mezuetan eta ekintzetan, eta gehien amorrarazten nauena ahulenak matxakatzeko erakusten ari diren joera hori. Kurdistanen abertzaleen kontra ari dira, Afganistanen emakumeak zapaltzen, Palestinan ezkertiarrak jazartzen, Europan marrazkilari bat mehatxatzen... eta beti Ala ahotan. Nire errespeturik handiena Alari, Jesukristori eta beste guztiei, baina jarraitzaileak jainkoaren izenean hiltzen hasten direnean, a ze nazka. Aurretik biktima izateak ez du gero borrero izateko eskubidea ematen. Juduei ere ez Palestinan, portzierto.



## Contra el viento del norte - Cada siete olas

Daniel Glattauer

Daniel Glattauerrek posta elektronikoa aitzakia hartuta narrazio arin eta atsegin bat jasotzen du *Contra el viento del norte* eta honen ondorioa den *Cada siete olas* liburuetan. Emmi Rothner eta Leo Leikek ez dute elkar ezagutzen, baina kasualitateak sarean elkartuko ditu. Hortik aurrera printzipioz garatzeko inongo aukerarik ez lukeen harreman berezia sortuko da. Horrek eta batak besteari bidalitako mezuek irakurtzeko grina nahikoa izan daitezke, baina liburuen benetako indarra hausnarketarako ematen duten aukeran dago: Zergatik erakartzen gaitu horrenbeste ezezagunak? Zergatik irekitzen diogu bihotza aurrez aurre ezagutzen ez dugun norbaiti eta ez diogu esaten ondokoari nola sentitzen garen? Nola sortzen ditugu irudi idealak ezagutzen ez dugunetik?

*Idoia Luzuriaga*

## The worst you can do is harm

The long winters

Nire talde gogokoena ziurrenik. John Rodericken taldearen lehen diskoa da *The worst you can do is harm* eta beharbada orain arteko lauretan esperimentalena. Abestiek ez dute batasun bat osatzen, ez da disko biribila, lehenengo entzunaldian arraro uzten zaitu. Roderickek berak diskoari buruz mamuz eta itsasontzi galduen arrastoz osaturik dagoela esan zuen. Negua dela, pianoak daudela eta txakur bat zelatan. Hondamen horren baitan indie poperoa egiten du Seattlego taldeak. *Give me a moment* ahaztezinak The National-en erako taldeak gogorarazten ditu. Lehen aipatutako "negutasuna" *Mimi*-k ematen dio, edonor hunkitzeko gai den balada likatsua. *Carpats* eta *Unsalted* water, berriz, nire gogokoenak, taldeak aurrerako hartu zuen joeraren erakusgarri dira.

*Ane Arrieta*



## The secret of Kells

Tomm Moore

Dublingo Trinity Collegen izan bazara, 800 urtearen inguruan zeltiar monjeek transkribatutako latinezko *Kells-eko Liburua* eskuizkribua miresteko aukera izango zenuen. Marrazki bizidunez egindako luzemetraia eder honek kultur altxor honen jatorriaren inguruko fikziozko istorioa asmatu du. Erdi Aroan abadia batean bizi den Brendan umezurtzak basoko maitagarri baten laguntza izango du *Kells-eko Liburua* izenez ezagutuko den lana osatzeko tinta lortzeko. Horrez gain, hiria bikingo basatien jazarpenetik salbatzen saiatuko da. Prozesu honetan Aidan anaiaren eta Aisling otsokumearen laguntza jasoko du. Artelan hau *Up*, *Los mundos de Coraline* eta *Tiana y el sapo* filmekin batera Animaziozko Film Onenaren Oscar sarietarako aukeratua izan zen 2010ean. Ostegunean Zelai Ariztin.

*ButaK 21 zineklub taldea*

Poloniako paisaiak.

*Jonmikel Intsausti*

# Joxe Mari Iparragirre

## BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Santa Barbara bidea z/g. - Telefonoa/fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
jmiparragirre@edunet.es - www.jmiparragirre.net/web - 20700 - URRETXU (Gipuzkoa)

## ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa
Osasun familia
A eta D ereduak

Aurrematrikula:
Ekainaren 1etik 10era (biak barne).
Matrikula egiteko epea:
Uztailaren 4tik 8ra (biak barne).

Lanbide aukerak: Ospitaleko erizain laguntzailea, zaharren egoitzetan, eguneko zentruetan, lehen artapenetako laguntzailea, kontsulta pribatuetan, hortz-kliniketan laguntzailea, gaixoen zaintza.

Otamotz Herri Aldizkaria

## EGIN HARPIDEDUN

GOIERRIKO hitza info

OTAMOTZ ☐ urtean 20 euro
ZINTZO MINTZO ☐ urtean 25 euro
OTAMOTZ+HITZA ☐ urtean 75 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

- Izen-abizenak: _____ • N A : _____
- Lanbidea: _____ • Jaioteguna: _____
- Helbidea: _____ • Herria: _____
- P.K: _____ • Tel.: _____
- Posta elektronikoa: _____
- Kontu zenbakia: ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐ ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

902-82 02 01 (Astegunetan 08:30-20:30/Larunbatetan 09:00-13:00) - harpidetza@hitza.info - Barrenkale 13 behea Urretxu

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

HARATEGIA URDAITEGIA

✆ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JavierArratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
✆ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

KEROS

Ekarri zure argazkiak eta nahi duzun moduan aterako ditugu: koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

BIONA

AROZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

PREMANK
KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68

Lanbroa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 03 75 27

HERCE

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9- Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN ESKAINTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

Yarmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13

TABERNA

Iturreta

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

TXEX-BIROLAK

alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

iKER

SUKALDEAK

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

julita

MERTZERIA

Sekundino Esnaola, 2 - Zumarraga
Tel. 943 72 05 62

Herri Aldizkaria
Otamotz

Iker - 647 319 775 - beasain@iragarri.net

TOKI APROPOSA
DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA
JARTZEKO

# Juan Luis Ayuso: Onesimok zorabiatu ez zuen marrazaina

*Juan Luis Ayuso urretxuarraren bizitzako ardatzetako bat kirola da. Futbol atezaina izan zen eta ondoren epailea. Gainera, Goierri kirol elkarteko zuzendaritzako kidea da mutikoa zenetik. Bere bizitzari, kirol ibilbideari eta epaileen lanari buruz hitz egin dugu berarekin.*



Juan Luis Ayuso Goierri elkartearen kanpoaldean.

**Noiz eta non jaio zinen?**

Maiatzaren 26an 56 urte egingo ditut. Urretxun jaio nintzen, Jauregi kalean. *Txibisto* zenak esaten zuen bezala, Frantzia hiribidean. Ama Urretxuko Larreaga baserrian jaio zen eta aita Salamancan. Aitak Vascongados trenbidean lan egin zuen. Zortzi anaia-arreba ginen eta egun sei gara.

**Nola oroitzen duzu haurtzaroa?**

Zoragarria izan zen. 7-8 urterekin dagoeneko mezatik irten eta Elizaldera joaten ginen futbolean jokatzera. Beste batzuek pilotan jokatzen zuten eta denok borrokan ibiltzen ginen: goiko kalekoak beheko kalekoen aurka. Niri gehien gustatzen zitzaidana futbolean jokatzea zen. Zapatilak zikintzen nituen eta amak sekulako errietak egiten zizkidan.

**Zein eskoletara joaten zinen?**

Urretxuko Nazionaletan. Liburutegia

dagoen tokian zegoen. On Manuelekin hasi ginen, gero On Juanekin izan ginen eta azkenik On Segundorekin. Ondoren institutura pasatu ginen. Guk inauguratu genuen institutua. Bertan sekulako istripua izan nuen. Jolasten ari ginela lagun batek bultza egin zidan eta beira zati batekin zangoa moztu nuen. Anputatzeko zorian izan ziren. Ozta-ozta libratu nintzen. Moya soin-heziketa maisuari eta Donostiako Mora sendagileari esker libratu nintzen. Maisuak berehala Orbegozoren klinikara eraman ninduen, bertan mojek grapa eta zapi batzuk jarri zizkidaten eta ondoren Donostiara eraman ninduten. Dena ebakita nuen, baina zorionez beira ez zen hezurreraino heldu. Sendagilea josten saiatu zen eta lan ona egin zuen. Kirofanotik zazpi aldiz pasatu naiz, baina hura izan da nire bizitzako istripu larriena.

**Ikasle ona al zinen?**

Ez nintzen ikasle txarra, baina institutuan nengoela Iparragirre inprentan lanean hasi nintzen. 14 urte nituen eta enkarguak egiten nituen. Batxilergoko bigarren mailan, 16 urterekin, bi ikasgai gainditu gabe utzi nituen eta amak zer edo zeren susmoa hartu zuen. Bizikleta batekin ikusi nindutela esan zidan. Lanean ari nintzela esan nion eta institutua utzi nuen. 39 urte eman nituen inprentan eta bi urte daramatzat langabezian. Inprentan denetik egin nuen.

**Futbolean umetan hasi zinela esan duzu.**

Ahal genuen guztietan *kanpitora* joaten ginen. Niri Iribar gustatzen zitzaidan eta, txikia naizen arren, atezain jartzen nintzen. Urretxua elkarte gastronomikoko kideek eta Goierrik bultzatutako taldean eta Urolan jokatu nuen eta, askok sinesten ez didaten arren, Realean jokatzeko probetan parte hartu nuen Arkonadarekin batera. Soldadutza garaian Zaragozako Casetas taldean jokatu nuen. Urretxua eta Goierriren taldean Herasek ere jokatu zuen. Urolan hasi zela esan izan dute, baina ez da hala. *Txugi*k eta *Musti*k ere Goierrirekin jokatu zuten Urolarekin jokatu aurretik.

**Zergatik utzi zenuen Urola?**

Entrenatzaileak beste atezainari baloiak jaurtitzen jartzen ninduen eta niri ere jaurtitzea nahi nuela esan nion. Pikutara bidali nuen eta Quevedo presidenteak barkamena eskatzeko esan zidan. Ez niola

*"Lehen Mailan gehiago aritu ez banintzen Urio Velazquezek marrazain bezala hartu ez ninduelako izan zen"*

eskatuko erantzun nion eta ez nintzen itzuli. Esan bezala, soldadutzan nengoela Casetas taldean jokatu nuen. Ondoren ezkondu egin nintzen eta epaile lanetan serio hasi nintzen. Ordurako *kanpiton* eta La Sallen epaile lanetan aritua nintzen eta Fernando Bertek federatzeko eskatu zidan. 24 bat urterekin joan nintzen Gipuzkoako arbitroen elkargora.

**Zein ibilbide osatu zenuen epaile munduan?**

Regional mailako lehen partida 1980ko azaroan epaitu nuen: Soraluzek bi eta bat irabazi zion Zumaiakori eta 4.270 pezeta kobratu nituen. 1984an Preferente mailara igo nintzen. Lehen partida Legazpin izan zen: Ilintxak bi eta huts irabazi zion Lagun Onak taldeari. Hirugarren Mailako lehen partida Azkoitian epaitu nuen: Anaitasunak bat eta hiru irabazi zion Ondarroako Aurrera taldeari eta 10.800 pezeta kobratu nituen. Urte haietako guztietako datu guztiak gordeta ditut. Azken partida Logroñon izan zen, 1991n. Bigarren B mailara igotzeko partida zen eta halakoetan mailaz igo behar dituzten epaileak jartzen dituzte. Baina mailaz igotzeko proba fisikoak gainditzea ere beharrezkoa da eta ezin izan nuen Madrilera joan aita hil zelako. Bai nik eta bai elkargokoek Madrilera deitu genuen, baina ez zidaten proba atzeratu. Nire ordez Elizegi Uranga igo zen, egun Realaren delegatua dena. Epaile lana uzteko zorian izan nintzen, baina Urnietako Gorrotxategik marrazain hastea proposatu zidan. Marrazain lanetan aritu nintzen, baina asko kosta zitzaion konbentzitzea. Epaileak beti marrazain berberekin lan egiten hasi ziren garaian izan zen.

**Goi mailako partidetan aritzeko aukera izan zenuen.**

Lehen Mailako eta Bigarren Mailako partidetan aritu nintzen. Antoñana Moraza eta Begiristain Izeta epaileekin aritu nintzen batez ere. Lehen Mailan gehiago aritu ez banintzen beteranoena izan arren Urio Velazquezek bere marrazain bezala hartu ez ninduelako izan zen. 45 urterekin erretiroa ematen ziguten eta 2000. urtean utzi nuen.

**Epaile lana dirudien bezain gogorra al da?**

Niri asko gustatzen zait. Ez zait jendeak

1991ko ekainean Arrasateko futbol zelaian Realeko eta Real Madrileko jokalariekin.

ni iraintzea gustatzen, e! Futbola asko atsegin dut. Talde guztiak gustatzen zaizkit eta ez dut ezer inoren aurka. Hori bai, Athleticzalea naiz. Realak ere irabaztea nahi dut, Athleticen aurka joka-

*"Futbol zelaietan euskaldunon aurkako hamaika gauza entzun ditut eta karkaxa pila jaso dut"*

tzen duenean izan ezik.

**Ez duzu galdera erantzun... Zergatik atsegin duzu epaile lana?**

Zezenak ere asko gustatzen zaizkit. Aita Salamancakoa zen eta bertara joaten nintzenean kapeatan parte hartzen nuen. Julio Roblesekin aritua naiz. Aitari toreatzailea izan nahi nuela esan nion eta ez zidan utzi. Bera ere Athletic zalea zen eta beti epaileen aurka biraoka aritzen zen. Aitari izorratzea erabaki nuen: toreatzailea izaten utzi ez zidanez, epaile izango nintzela esan nion. Ez nuen esandakoa berehala bete, baina azkenean arbitro bukatu nuen.

**Oraindik ez duzu erantzun zergatik gustatzen zaizun epaile lana...**

Lan honi esker lagun asko egin ditut, toki askotako gastronomia eta kultura ezagutu ditut... Oraindik toki askotatik dei-tzen didate partidak arbitratzeko: *Txugi* eta *Musti*ren omenezkoak, Gaztelekuren txapelketa...

**Halakoetan beharbada ez, baina Lehen eta Bigarren mailako partidetan sufritzea tokatuko da.**

Bai, noski. Behin Vallecasen autoa komisarian utzi genuen, poliziek furgonetan eraman gintuzten zelaira eta furgonetan itzuli ginen auto bila. Partida hartan bertan polizia bat zelaitik bidali nuen. Antoñana Morazari polizia bat gu iraintzen ari zela esan nion eta ez zuen sinesten. Azkenean polizia buruari deitu zion eta polizia hura furgonetara bidali zuten. Zelaietan euskaldunon aurkako hamaika gauza entzun ditut eta karkaxa pila jaso dut, baina beldurra izan banu etxean geldituko nintzatekeen.

**Zer dohain behar dituzte epaile eta marrazainek?**

Guztiz inpartzialak izan behar dira. Koinatua eta bere lagun onena zelaitik botatzea tokatu zitzaidan eta azkenean elkargora deitu nuen Urolaren partida gehiagotara ez bidaltzeko eskatuz. Epaileak arautegia besterik ez du izan behar buruan zelaira irteten denean. Nire emaztea bi aldiz bakarrik joan zen ni ikustera: zelaian beste bat nintzela esan zidan. Hala da.

**Epaile lana zaila al da?**

Bai, eta marrazain lana zailagoa da oraindik. Marrazainak 60 metroko korrikaldiak egin behar ditu eta azken atzelaria, baloia eta aurrelaria zaindu behar ditu. Bi begi bakarrik ditugu, ordea. Jokalari batek 35 metrotik baloia atera botatzen duenean, langan jo ondoren botea barruan edo kanpoan jo duen ikustea ezinezkoa da. Une horretan azken atzelaria zaintzen ari gara.

**Ez al da komeni epaileei teknologia berrien laguntza eskaintzea?**

Nire ustez futbolak xarma galduko luke. Partida gehiegitan gelditu beharko litzateke eta azkenean epaileak soberan leudeke. Nori egingo diozu birao? Makinatxoarekin dagoenari? Epailon lanak futbolari xarma ematen dio.

**Epaileen lana nahikoa eskertzen al da?**

Ez. Dena den, orain lehen baino hobeto kobratzen dute, nahiz eta oraindik ez diren profesionalak. Bestalde, bai lehen eta bai orain jokalariek ez digute lana errazten eta ikusleek iraindu egiten gaituzte.

**Ba al da bereziki gogoratzen duzun partidarik?**

Bai, Realak eta Real Madrilek madrildarren kapilauaren oroimenez 1991n Arrasaten jokatu zutena. Urio Velazquez

1994ko urtarrilean Sevillako Benito Villamarin futbol zelaian.
Ezkerretik eskuinera: Ayuso, Gordillo, Antoñana Moraza, Parra eta Lakabe.

antolatzaileekin haserretu zen niri deitu zidatelako. Real Madrilen kapilaua Antzuolakoa zen eta Chendo eta Butragueño ezkondu zituen, besteak beste. Lagunarteko partida hartan bere arrebak egin zuen ohorezko sakea. Real Madrileko jokalariak ezagutzeko aukera izan nuen eta Chendo sekulako tipoa iruditu zitzaidan. Butragueño ere oso jatorra da. Lehen Mailako partida bat arbitratzea, nahiz eta lagunartekoa izan, sekulakoa izan zen. Hau guztia emazteari eskertu behar diot. Izan ere, 21 urte eman nituen asteburu guztietan partidak arbitratzen eta goi mailan eman nituen zazpi urteetan asteburu osoa kanpoan ematen nuen. Lehen Mailara salto egitea lortu ez banuen lanean erraztasun gutxi eman zizkidatelako izan zen.

**Zein da ezagutu duzun epaile onena?**

Lopez Nieto. Baina maisua Guruzeta Muro izan zen. Gipuzkoarra zen, gainera. Behin Urretxura ekarri genuen. Egungoen artean onena Kopa finalean aritu zena da: Undiano Mallenco nafarra. Sentitzen dut hori esan beharra, Perez Lasa gipuzkoarra ere oso ona baita eta laguna baitut gainera.

**Zein da ezagutu duzun jokalari maltzurrena?**

Onesimo. Izan ere, asko protestatzen zuen. Rayo Vallecano taldean jokatzen zuen eta ziria ez zidala behin ere sartu onartu zidan. Tipo jatorra zen eta partida amaieran eskua ematen zidan.

**Eta ezagutu duzun jokalari jatorrena?**

Chendo. Aipatutako lagunartekoan ezagutu nuen, baina bai zelaian eta bai bazkarian sekulako pertsona iruditu zitzaidan. Ni Urolako jokalaria nintzen garaian Soriak asko lagundu zidala ere oroitzen dut.

**Gustuko futbol zelaia?**

Epaileontzat denak dira antzekoak. Sevillako Benito Villamarineko giroak txunditu egin ninduen. Partida hasi baino bi ordu lehenago jendea zelaian zegoen jada.

**Zer iritzi duzu Guardiola eta Mourinhoren inguruan sortu den zalapartari buruz?**

Pep Guardiolak asko dakiela iruditzen zait. Mouk ere bai, baina probokatzaile eta gerrazale samarra iruditzen zait. Pepek ez luke jokalari lizentziarik izan behar, duela urte batzuk beste jokalari bat hil baitzuen ia. Nire ustez Txapeldunen Ligako finalaurrekoan epaileak asmatu egin zuen. Txartel gorria merezi zuen. Ez zuen aurkaria jo, baina arautegiak argi dio: jotzen saiatzea ere zigortu beharrekoa da. Mourinhok zelaira irten aurretik lasaitzeko eskatu beharko lioke. Bera zelaira ateraz gero, argi dago Real Madrilek hamarrekin bukatuko duela.

**Zaletasun gehiago ba al duzu?**

Goierri elkartea. 18 urterekin zuzendaritzan sartu nintzen eta ordutik hiruzpalau urtetan bakarrik kale egin dut. Elkarteko presidente gazteena izan nintzen, 23 urterekin, eta egun lehendakari ordea naiz. Goierri nire lehen etxea da. Poztasun handiak eman dizkit. Gazte asko sartu dira eta ea lekukoa hartzen duten.

**Zer lan gehiago egin duzu Goierri elkartean?**

Besteak beste, epaile eskola abian jarri nuen. Duela 15 bat urte 30 neska-mutil baino gehiago elkartzen ziren hemen. Askotan nik neuk eramaten nituen partidetara. Horrenbeste neska-mutil nituenez, Argixaon jokatzen ziren kadete eta haur mailako partidetan marrazainak jartzen nituen. Taldeek partida guztietan marrazainak eskatu zituzten eta elkargoak marrazainak jartzeari uzteko eskatu zidan. Sinesgaitza da.

# Felix Urtzelai: "Erleek ere etxe giroa behar dute"

*Felix Urtzelai erlezain eta enpresari urretxuarrak omenaldia jaso zuen apirilean Zegamako Erlezain Egunean. Urtzelaik bizitza osoa darama erle artean, bere aitonak ere zaletasun hau baitzuen.*



Felix Urtzelai bere etxeko lorategia atzean duela.

**Nongoa zara?**

Urretxun jaio nintzen, 1932an, baina bost urte nituenean gurasoak Legazpira itzuli ziren: familiaren Azkuene baserrira. Legazpira bidean futbol zelaia duen baserria da. Nire bi anaiak han jaio ziren, baina ni, ez dakit zergatik, Urretxun.

**Nongoak ziren gurasoak?**

Ama Urretxukoa zen eta aita Legazpikoa, Zabalotegi baserrikoa. Baserri hori Patriziok erosi zuen lantegia handitzeko. Aitak trenbidean lan egin zuen. Hargina zen eta trenbidean hasi aurretik Kontxako harriak zazpi pezetatan landu zituela esaten zuen. Beti izan ditugu erleak, bai Zabalotegin eta bai Azkuenen. Aita ez zen ibiltzen, baina aitona zena bai. Bestalde, Legazpin maisu bat zegoen, Prantzisko Mari Agirre, eta Legazpiko baserri gehienetan erlezain ibiltzen zen.

**Norekin ikasi zenuen ofizioa?**

Neure kasa ikasi nuen, baina beti izan

dut erleekin ondo moldatu den laguntzaileren bat. Bestelakoan, burdinarekin ibili naiz beti. Bere garaian eztia kolatzeko makina bat prestatu nuen. Etxean izara batekin kolatzen dugu. Emazteari asko gustatzen zaio eztia kolatzea eta ondoren potetan sartzea. Dena den, ez naiz sekula izan erlauntz asko dituen horietakoa. Egun bi ditut, iaz bat galdu bainuen.

**Erlauntz gutxirekin sari asko irabazi dituzu.**

Santa Lutzi egunean bitan lehen saria lortu dut eta beste batean bigarrena.

**Zein da sekretua?**

Neguan erleak zaindu egin behar dira: janari pixka bat eman zaie. Azukrea ematen diet. Usabiagarenean erosten dut eta ondoren egosi. Salda lodi samarra egin eta hori ematen diet jateko. Udaberrian, berriz, lana eginarazi behar zaie. Azukrea ematen jarraituz gero ematen dutena ez da eztia. Beste batzuek jaten ematen jarraitzen dute, baina hortik lortzen denari ez dago eztia deitzerik. Bestalde, barroaren aurka borrokatu beharra dugu. Lehen hemen ez zegoen gaitz hori. Eztia iraila bukaeran edo urria erdialdean hartu izan dut beti. Orduan lodiagoa da, beltza. Gainera, erleentzat toki oso polita dugu: dena eskura dute, babesa dute... Beste batzuek mendi gorrian izaten dituzte, baina erleak zaindu egin behar dira. Erleek ere etxe giroa behar dute.

**Barroa aipatu duzu. Azkenaldian Asiako liztorra ere zeresan handia ematen ari da.**

Irun aldean aurkitu dute dagoeneko. Lehengoan Zaldibian bilera bat izan genuen eta horietako batzuk erakutsi zizkiguten. Beldurra ematen du. Dagoeneko munduko gaitz guztiak nahasten ari dira. Zer egingo diogu ba... Globalizazioaren ajeak.

**Erleak funtsezkoak dira.**

Hala da. Nire etxe ondoan kiwiak eta menbriloak ditut eta oso ondo loratzen dira.

*"Asiako liztorrak beldurra ematen du: dagoeneko munduko gaitz guztiak nahasten ari dira"*

**Zegamako omenaldia gustura hartuko zenuen...**

Bai, baina harrituta nengoen. Izan ere, beste batzuek nik baino askoz ere merezimendu handiagoak egin dituzte. Leundatarrek, adibidez. 80 urte betetzera noalako omenduko ninduten...

**Egun ona pasatu al zenuen?**

Bai, bai, nahiz eta eguraldi txarra egin zuen. Zegamarrek lan handia egiten dute egun horretarako. Dena den, ez naiz urtero joaten. Izan ere, Realak etxean jokatzen duen asteburuetan Donostiara joaten gara emaztea eta biok. Donostian etxetxo bat dugu eta Realaren bazkideak gara. Gaurko munduan dena diru kontua da eta Reala larri dabil. Athleticek hemengo jendearekin Lehen Mailan mantentzea lortzen du, baina gipuzkoar asko dituztela ere esan beharra dago.

**Futbol zaletu sutsua al zara?**

Ez. Burdinari denbora gehiago eskaini diot Realari baino. Donostiako Escuela de Artes y Oficios delakoan bi urte eman nituen eta zuzendaria Madaya enpresako bazkidea zenez, enpresa honetan hasi nintzen lanean. Ondoren Orbegozon aritu nintzen. Jesus Iturbe eta biok Eli Apaolazaren bazkide izan ginen aizto fabrikan eta gero gure kontura jarri ginen. Harrezkero elkarrekin gabiltza. Frikzio plakak egiten ditugu eta gure ekoizpena Eslovakian, Alemanian, Frantzian... saltzen dugu.

**Nola ikusten duzu ekonomia?**

Sidenorrek Legazpiko fabrika isteak kalte handia egin digu. Txapa beraiei erosten genien eta orain Alemaniatik eta Frantziatik ekarri beharra dugu.

**Sekula halako krisirik ezagutu al duzu?**

Ez. Egungoa konpondu ezinekoa da. Bakoitzak bere aldera jotzen dugu. Frantsesei inbidia diet. Haiek Frantziaren alde egiten dute, baita Baionakoek ere. Gu, berriz, denak sakabanatuta gaude: katalanak alde batera, euskaldunak bestera, espainolak beste batera... Horrela ezin da. Denok alde berera jotzen ez badugu, zaila da aurrera egitea.

**Tailerrera joaten al zara oraindik?**

Bai. Egunero. Goizean eta arratsaldean. Batzuetan ordu pare bat egoten naiz eta beste batzuetan egun osoa. Beti dago zer hobetu.

**Bestelakoan, zer zaletasun dituzu?**

Etxe inguruan beti dago lana. Ez naiz taberna zalea eta etxe inguruan gustura ibiltzen naiz. Lorategia nik neuk zaintzen dut.

# Euskal Herriko atletismoaren harribitxia Urretxun bizi da

*Walid Ouaalit aljeriarra adin txikikoa zen bere herrialdetik irten zenean. Berak gidatu zuen hamaika lagun Aljeriatik Almeriako kostaldera eraman zituen patera. Euren herrialdeko pobreziatik ihesi Europara etorri ziren bizitza hobe baten bila. Gazte hau bere helburua lortzeko bidean da: elektrizitatea ikasi du, DBH bukatzen ari da eta atletismo munduan etorkizun oparoa du. Ouaalit Urretxuko adin txikikoen etorkinen etxean bizi da. Bertako lorategian hartu gintuen abegitsu eta jator.*

Walid Ouaalit orain arte irabazitako garaikurretako batzuekin.

Walid Ouaalitek 21 urte ditu. Orangoa da. Aljeria iparraldekoa. Bere herrialdean ez zuen etorkizun oparorik ikusten eta Europara etortzea erabaki zuen. Lau urte daramatza gure artean. Pateran etorri zen. "Gazteena ni nintzen, baina nik gidatu nuen patera. Izan ere, nire aitarekin arrantzale lanean aritzen nintzen eta itsasoa ondo ezagutzen nuen. Hamaika lagun ginen. Besteek ontzia erosi zuten eta nik gidatu egin nuen".

Bidaia ez zela arriskutsua izan dio. "Ez genuen denbora asko behar izan. Zazpi ordu eta erditan egin genuen bidaia. Itsasoa bare zen. Bezperan interneten eguraldiaren iragarpena begiratu genuen eta GPSa erabili genuen". Ouaalit eta bere lagunak Almeriako Gata lurmuturrean lehorreratu ziren. "Nire helburua iparraldera joatea zen. Alacantera autobusa hartu nuen, gero Bartzelonara joan nintzen eta azkenik hona heldu nintzen: Donostiara. Bertan gelditzea erabaki nuen".

Donostian egin zuen lehen gauza Poliziarengana jotzea izan zen. "Kalean aurkitu nituen beste etorkin batzuek Poliziak adin txikikoen etxebizitza batera eramango ninduela esan zidaten. Ordutik Seguran, Intxaurrondon, Larratxon eta Urretxun izan naiz. Urretxun urtebete pasatxo daramat. Oso gustura nago bertan. Euskal Herrian lagun asko egin ditut". Lagunak egiteaz gain, etorkizunerako prestatu da. "DBHko laugarren maila egiten ari naiz eta elektrizitate titulua ere atera dut. Praktikak egin nituen, baina ez zidaten lanpostua eman oraindik paperak ez nituelako. Orain paperak ditut, baina lanik ez dago ordea. DBH bukatzen dudanean erdi mailako ziklo bat egin nahi dut". Etorkizuna begi onez ikusten du. "Aurki Urretxuko etxea utziko dut helduen etxebizitza batera joateko. 23 urte betetakoan neure kabuz jarri beharko dut". Ez da beldur. "Euskal Herrian ondo hartu naute eta toki guztietan lagunak ditut. Urretxu eta Zumarragan, adibidez, korrikalariekin harreman oso ona dut: Tasio Gomez, Cipri, Ruben Lanz, Juanjo Igarzabal... Aisialdian surfa egitea gustatzen zait".

*"Hemengo korrikalariekin harreman oso ona dut: Tasio Gomez, Cipri, Ruben Lanz, Juanjo Igarzabal..."*

Futbolean ere aritu zen: Kostkas, Herrerako Sporting eta Hernani taldeetan jokatu zuen erdiko atzelari postuan. Duela hilabete batzuk, berriz, atletismoa probatu zuen eta sekulako emaitzak lortu ditu oso denbora laburrean. "Iazko uztaila amaieran hasi nintzen, baina dagoeneko burubelarri ari naiz. Izan ere, batere entrenatu gabe joan nintzen arren lehen lasterketan hamabost lehenengoen artean sailkatu nintzen. Astebururo lasterketetara joaten hasi nintzen eta ondoren Oñatiko Aloña Mendi taldearekin entrenatzen. Ordutik lasterketa dezente irabazi ditut".

Walid Ouaalit Euskal Herriko eta Gipuzkoako txapelduna da 1.500 metrotan. Gainera, Gipuzkoako kros txapelketan hirugarrena sailkatu zen eta Errege eguneko krosean gipuzkoar onena izan zen. Hamaika lasterketa irabazi ditu. Azkena, Laredoko Milia. Hurrengo helburua Espainiako txapelketan parte hartzea da. 1.500 eta 800 metroko lasterketetan parte hartu nahi du. "Krosetan ere gustura aritzen naiz, nahiz eta luzeagoak diren. Pista udan egiten dut eta krosa neguan". Oraindik asko hobetu dezakeela uste du. "Javi Gomez entrenatzailea txundituta dago. Astearte, ostegun eta ostiraletan Argixaon entrenatzen dut eta astelehen eta asteazkenean errepidean aritzen naiz: Brinkola eta Azkoitia aldera joaten naiz".

Epe ertainera bere helburua "talde handi batekin fitxatzea" da. "Atletismotik bizitzea zaila da, baina hori gustatuko litzaidake. Lasterketa guztiak gertutik jarraitzen ditut eta nire korrikalari gustukoa Jesus España da. Valentzian edo Sevillan aritzea gustatuko litzaidake. Izan ere, hango eguraldia hemengoa baino gozoagoa da eta atletismo zaletasun handia dago".

Hango talde batekin fitxatzea gustatuko litzaioke, baina Euskal Herrian bizitzen jarraitu nahi du. "Jendearekin ondo portatzen bazara, jendeak ondo hartzen zaitu. Bai hemengoen artean eta baita kanpotik gatozenon artean denetik dago. Batzuek nire azalaren kolorea ikusten dutenean gaizki pentsatzen dute, baina guztiok ez gara berdinak".

Bere senitartekoak oso harro daude, noski. "Gurasoei eta bost-anaia arrebei lasterketetako podiumetan ateratako argazkiak bidali nizkien eta oso pozik daude. Euren hutsunea sumatzen dut eta baita eurek nirea ere. Orain arte ezin izan naiz Aljeriara itzuli, paperik ez bainuen. Uda honetan jaitsiko naiz familia bisitatzera", amaitu du.



Alex Areizaga

Informatika

## Interneten arratsalde pasa

Tropela.net webgunearen inkondizional eta yonkiak kenduta gainontzekook interneten askotan denbora galtzen ibiltzen gara zer egin ez dakigula. Nire ideien kamustasunean, aste honetan zuen denbora preziatu hori alferrik galtzen jarraitzeko gomendioak egingo dizkizuet. Batetik etxegiroan.com webgunea aurkeztu nahi nuke, euskarazko ipuinen audioak eskura-tzeko webgunea. Haurrentzako eta helduentzako ipuinak dituzte eta telezaborraren alternatiba bikaina da. Bestetik, (autopropaganda gisa) kunkkinzona.net webgunea: gaztetxearen eta *KKinzona* irratiaren berri ematen duena, hau saretik entzuteko aukera ere emanez. Hirugarrenik, malviviendo.com atariko serie gazte eta gaiztoa. Ikus ezazue, aurkezpenek ez dute balio. Bizikleta zaletuekin jarraituz salite.ch eta altimetrias.net webgune espezializatuak daude eta azkenik ikaragarri eta kupidagabe aspertuta daudenentzako http://lalalalalalalalalalalalalalalala.com edo http://whydidyoubuymethat.com.

Miren Arrieta

Osasuna

## Konjuntibitisa

Begiaren azaleko geruzaren inflamazioa da. Normalean gardena izaten da. Konjuntibitisa infekziosoa (birus edo bakterio batek sortua), alergikoa, irritatiboa (gorputz ezezagun batek sortua) edo kimikoa (sustantzia kimiko batek sortua) izan daiteke. Konjuntibitis infekzioso gehienak arruntak eta arinak dira eta gutxitan utz dezakete ondorio garrantzitsurik. Gehienak azalean edo sudurzuloetan bizi diren bakterioek sortzen dituzte eta besteak biralak dira. Kutsakorrak dira, gaixo dagoen begiaren jarioarekin kontaktuan kutsatzen da. Beraz, eskuak garbitzea, eskuoihalak ez partekatzea eta ahalik eta gutxien gerturatzea oso garrantzitsua da. Ohiko sintomak: begiko mina eta azkura, zerbait begian edukitzearen sentsazioa, zorne jarioa eta fotofobia (argiari begiratzerakoan mina) dira. Begia kamamila urarekin garbi daiteke eta argiaz babestu behar da medikuak emandako kolirioa erabili arren.

# 90eko hamarkada hasiera

*Zintzo Mintzo euskaltzale elkartearen lehen batzordea*

Zintzo Mintzo euskaltzale elkartearen sorreran parte hartu zuten urretxuar eta zumarragarretako batzuk elkartearen lehen egoitzan.

## Marian Larrañaga



*Marian Larrañaga zumarragarrak Nazionaletan, Medranotarrekin eta institutuan egin zituen oinarrizko ikasketak. Ondoren Donostiara joan zen ile-apainketa ikastera. "Umetatik oso argi nuen ile-apaintzaile izan nahi nuela. Ikastea ez zitzaidan gustatzen eta gainera ez dut uste behar bezala motibatu ninduten". Duela 35 hasi zen lanean Donostiako Mike ile-apaindegian. Herrira itzuli zenean Maria Pilar Comontesekin lan egin zuen eta duela 19 urte Bits ile-apaindegia ireki zuen Ana Muñozekin.*

**Zer izan nahi zenuen umetan?**

Ile-apaintzailea.

**Aisialdian zer egitea atsegin duzu?**

Paseatzea eta lagunekin egotea. Bestalde Pilates egiten dut eta saunara joatea asko gustatzen zait.

**Bizitzeko toki bat?**

Zumarraga. Bestela kostaldeko herri txikiren bat.

**Orrazkera polita duen pertsonaia ezagun bat?**

Denak berdin joaten direla iruditzen zait. Victoria Beckhamek orrazkera oso politak eraman izan ditu, baina *petarda* hutsa da.

**Nor orraztuko zenuke gustura?**

Ane Igartebururi gustura asko sartuko nizkioke guraizeak... Urte asko daramatza orrazkera berberarekin.

**Zertaz hitz egiten da zuen ile-apaindegian?**

Gauza zehatzez eta politikaz ez hitz egiten saiatzen gara. Ile-apaindegieietan txutxu-mutxuka aritzen garela topiko hutsa da.

**Urretxuar eta zumarragarrak ondo orrazten al gara?**

Bai. Jendeak garrantzia ematen dio eta profesional onak daude.

**Gustuko ile-apaintzaileak?**

Tony&Gay ingelesak eta Vidal Sassoon.

**Zer pentsatzen duzu burusoil bat ikusten duzunean?**

Norbaitek ilea berreskuratzeko modua aurkituko balu aberastu egingo litzatekeela.

**Ilehoriak ala beltzaranak?**

Beltzaranak.

**Egindako azken oparia?**

Liburu bat.

**Eta jasotakoa?**

Senarrak mendian hartutako lore sorta.

**Data bat?**

Alaben jaiotze egunak.

**Mutil eta neska izen bana?**

Alabenak, Jone eta Josune, eta Markel.

**Zein egunkari irakurtzen duzu?**

Irakurri bat bera ere ez. Gainetik irakurri El Diario Vasco.

**Gustuko telebista saioa?**

Saio gutxi ikusten ditut osorik. *Los quién* moduko denborapasa telesailak bakarrik.

**Bereziki gorroto duzuna?**

Reality show-ak.

**Pelikula bat?**

*El nombre de la rosa.*

**Liburu bat?**

Paulo Coelhoren edozein.

**Abesti bat?**

REM taldea asko gustatzen zait.

**Soinu bat?**

Itsasoko olatuena.

**Usain bat?**

Belar moztu berriarena.

**Janari bat?**

Denetik jaten dut.

**Ura ala...**

Ardoa.

iKER

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

FAGOR

construcciones

# mendiola

Labeaga, 7 URRETXU
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

Etxebizitzen Eraikuntza

Industria Pabilioiak

Urbanizazio Lanak

ZUM Edizioak